B
BARREN
ELGOIBAR - 654. zenb. - XVI urtea - 2008-05-16

# “Jendea danborradan jotzera animatzen da, baina antolatzera ez hainbeste”

**Zigor Cornejo, Javier Lazkano eta Juan Carlos Arrieta danborradako batzordeko kideak**




Elgoibar
Residencial Géminis
Hobeto bizi!
Etxebizitza
berri eta esklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.
2008an emango dira!
Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar
943 74 80 92
www.grupogsi.com
Gsi
Ongizate eremuak

# Kareletik

Gure zazpi probintzietan, euskara diglosian bizi da gaztelaniarekin eta frantsesarekin. Esan nahi baita, erdara bi horien menpe dagoela gure hizkuntza, ofizialtasunetik eta normalizaziotik oraindik urruti. Gure luze-zabalean, Gipuzkoan eta Bizkaian omen gaude osasuntsuen.

Hedabideetan, esaterako, oso tarte txikia dute Iparraldeko berriek. Askotan irudi du han ez dela deus gertatzen, edo oso gutxi gertatzen dela, *Iparraldearen Orena* saioan guztia biltzen dutelakoan baitaude telebista horretako arduradunak. Nafarroa ere bitxikeria eta omenaldietarako leku bihurtu da zenbait hedabidetan. Zerbitzuetan ere euskara osasuntsuago omen dago Gipuzkoan eta Bizkaian.

Horren haritik, Gizarte Segurantzako langile bati koloreak aterarazi nizkion joan den ostegunean. Bertako txartela egitekotan joan nintzen, Eibarko bulegora. NANa baino ez zidan eskatu behar nonbait, baina horretarako gai ere ez zen euskaraz. Adeitsu baina gaztelaniaz esan zidan, ez zekiela euskaraz. Tramiteak euskaraz egiteko eskubidea nuelakoan galdetu nion euskaraz zerbitzua emango zidan lankiderik ba ote zuen. Aldameneko mahaiko lankideak hartu zion lekua. Badakit lehenengo hartu ninduenarentzat lotsatzekoa izan zela mahaitik jaiki behar izatea, baina hura bezain lotsagarri nengoen ni, kanpotar artean euskaraz hitz egingo zidan norbaiti erreguka.

Lakuako bulegoetan *Iradokizun postontziak* omen daude... Espainiara horrenbeste begiratu gabe, Arabako lautada zabalak euskalduntzeko eskatuko nuke nik; Euskal Telebista benetan euskaldun dezatela; *gure agintariek* maiatzeko lehen-bigarren asteburuan Senpereko lakua bisita dezatela urtero; eta San Ferminetako entzierroen garaian, atzerriko turisten artean, kale istiluei ez ezik, erromerietan dantzatzen diren euskaldunei ere telebistan leku egiteko...

Ainhoa Lendinez



**“Arabako lautada zabalak euskalduntzeko eskatuko nuke nik; Euskal Telebista benetan euskaldun dezatela”**

*“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan:* *943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com*


**TRINITATE JAIETAKO ARGAZKIAK MEDIATEKAN JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!**



**Egin klik eta ikusiko duzu**

**www.elgoiBARREN.net**

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA



# "Gero eta serioago hartzen du jendeak danborrada"

DANBORRADAKO BATZORDEKOA

# JUAN CARLOS ARRIETA

**Bihar, zapatua, gauerdi partean, danbor soinuak entzungo dira Plaza Handian, Udal Musika bandak lagunduta. Azken hiru urteotan, batzorde batek antolatzen du helduen danborrada. Juan Carlos Arrietak, Zigor Cornejo edo Javier Lazkanorekin batera, biziberritu egin du herrian poliki-poliki galtzen ari zen tradizioa. Lan mordoa egin behar izan dute zazpi hilabete inguru irauten duen antolakuntzan. Batzordeak hamar lagun baditu ere, eskertuko lukete taldeen arteko elkarlana. Ardoa izango da aurtengo Trinitate jaietako danborradaren leloa, eta ardo dastaketa egingo da egunean zehar. Danborrada polita prestatzen saiatu dira, ahalik eta ikusle gehien erakartzeko asmoz. Karrozetan ere detaile txikietan ohartzeko eskatzen dute, ezusteko atsegin asko topatu daitezkeelako.**

**Jendeak badaki zein lan dagoen danborradaren atzean?**
Ez. Dei asko egin behar dira, bidaiak… Kilometro asko egiten ditugu. Lan handia dago danborraden atzean.
**Urte guztiko lanaz ari gara?**
Ez da urte guztiko lana, baina bai sei edo zazpi hilabetetakoa. Bukatu eta gero, hurrengoan pentsatzen dugu. Egiten hasi aurretik lehenago pentsatu egin behar da. Hasierakoak mugimendu txikiak dira. Azkeneko hiru hilabeteak *a tope* ibiltzen gara.
**Nondik ateratzen dituzue uniformeak?**
Orain ditugun uniformeak errusiarrak dira. Iaz erosi genituen danborrak, eta lehenengo urtean sukaldarien uniformeak. Gainerako uniformeak alokatu egiten ditugu.
**Danborrada antolatzeko batzordea osatu zutenetik, lana erraztu egin da?**
Bai. Hamar lagun gara batzordean. Batzuk entsaioaz arduratzen dira, besteak uniformeaz, paperez edo idazkaritzaz.

**“Jendea danborradan irtetera animatzen da, baina antolatzera gutxiago”**

**Kalean askok esaten zuten gaueko danborrada egin behar zela, baina asko ez ziren antolatzera animatzen…**
Jendea irtetera animatzen da, baina antolatzera gutxiago. Orain dela bost urte inguru ikusten genuen behera zihoala, eta orain dela hiru urte erabaki genuen bultzada bat ematea. Gainera ikusten genuen interesa bazegoela, eta helduak eta gazteak etorriko zirela. Hasi ginen jendearekin hitz egiten eta batzordea osatu genuen. Udalak ere mordoa lagundu zigun, galduko zen beldurra zuelako. Eskerrak aurrekoei. Nahiz eta 20 edo 40 irten, eutsi egin zioten danborradari, eta ilusioz egiten zuten.
**Bihar zenbat irtengo zarete?**
220 lagun-edo, figurante eta danbor-joleekin.
**Horietatik zenbat joan dira entsaioetara?**
Entsaioak ez dira guztientzat izan, baina entsaiatzera ilusioz etorri dira.
**Danborradako parte izateko baldintza bakarrak konstantzia eta ilusioa dira?**
Bai, kontuan izan behar da ikasketengatik edo lanagatik guztiek ezin dutela ordu berean etorri. Beste askok lanean errelebo aldaketa izaten dute, baina etortzen den jendea ilusio handiz etortzen da, eta gustura. Atzo [pasa den barixakua] entsaiatu genuen barril eta danborrekin lehenengo bider, orain arte oholarekin egin izan delako. Eta beste modu batera egin zenez, laneko erremintekin, motibazioa ere altuagoa zen.
**Garaia heltzen denean, hunkitu egiten zarete?**
Urduri egoten gara, ondo atera dadin guztia, eta amaitzeko gogoarekin. Tentsio handia izaten da. Eta gainera, aurten ardo dastaketa dugu eguerdian, eta tentaldia bikoitza da.
**Zergatik aukeratu zenuten ardoaren leloa? Jendea deskontrolatzeko ere errazagoa izango da...**
Aurtengo danborradaren leloa ardoa da, eta horren arabera, jarri dugu dastaketa. Beti jai giroko leloren bat aukeratzen saiatuko gara. Dena den, gure asmoa ez zen egunean bertan ardo dastaketa jartzea. Astean zehar egiteko asmoa genuen, baina aste horretan galiziarren jaia zegoen. Asmoa da ohitura honi eustea, eta ikusiko dugu ondo irteten den. Bestela, beste data bat aukeratuko dugu. Baina Trinitateen babesa ondo etortzen zaigu.
**Zergatik?**
Jendearengatik. Lehenago ardo dastaketa egongo da eta horrela jende gehiago etorriko da. Jendea erakartzeko amua da.
**Ez da jende gehiegi egongo?**
Beno, gainera, eskubaloiko kanporaketak ere badaude, eta orduan, jende asko bilduko da. Gure helburua jende asko egotea da. Ikuskizun baterako ez da sekula jende gehiegi egoten. Danborradaren lekua murriztea beste kontu bat da, baina danbor-joleak gehiago motibatzen dira jende asko ikusita. Hurrengo urtean errepikatu egingo du gustura ibili bada.
**Gauerdian egitearekin ados zaudete?**
Bai. Lehen goizago hasten zen, gaueko hamarrak inguruan. Guretzako ez zen ordurik aproposena, ezin genuelako kuadrilarekin afaltzera joan. Danborrada ikustera joaten ginen, eta afaria ere berandu egiten genuen. Eta, azkenean, bokadilloa jatera joaten ginen. Ordua oso eskasa zelako eta jendea ordurako oraindik ez delako afaritik irten, gauerdian jartzea erabaki genuen. Niri ez zait gustatzen kafea bukatu eta Plaza Handira korrika joatea. Udal Musika Bandako zuzendariak berandu zela esaten zuen, baina erantzunaren arabera epaitu beharko da. Iaz ere gauerdian jarri zen eta jende gehiago irten zen. Zergatik aldatu behar da ondo dagoena? Jendeak eskatuko balu aurreratzea, orduan pentsatuko genuke.

**“Adinean aurrera goaz eta polita izango litzateke jende gaztea batzordean sartzea”**

**Donostiako San Sebastiananak ere gauerdian egiten dira...**
Bai, Gipuzkoan badago tradizioa. Azpeitian ez, hamarretan irteten dira, baina beste ohitura batzuk dituzte eta goizago joaten dira afaltzera. Baina Elgoibarren ez dago ikuspegi hori.
**Danborrada serio hartu beharreko tradizioa da, ezta?**
Bai, jendeak gero eta serioago hartzen du. Poliki-poliki gauzak egiten ari gara, poliki-poliki herritarren artean ohitura hori barneratzen goazen bitartean. Nahi izango genuke jende eta herriko elkarte gehiagok izena emango balute. Herriko elkarteek ordezkaritza izatea da jarraipena edukitzeko modurik onena. Urte batean elkarte batek antolatu dezala; hurrengoan, besteak. Edo, bestela, elkarteak batu daitezela. Guk, ahal dugun neurrian, jarraituko dugu.
**Batzordea gaztetu nahi duzue?**
Adinean aurrera goaz, eta polita izango litzateke jende gaztea sartzen ikustea.
**Herritarrek jakin behar dute, orduan, jende falta duzuela?**
Bai. Ateak zabalik daude izena eman nahi duenarentzako.

**Andoni Iturbe**

## Zer aldaketa ekarriko ditu

**Hezkuntza sisteman aldaketak datoz. Bologna sistema ezartzeko asmoa daukate Europa osoan, eta ikasleak ez daude sistema horrekin konforme. Kazetaritza ikasten ari den herritar bat, eta Batxilergoa amaitzen ari den beste ikasle bat jarri ditugu gaur aurrez aurre Bolognari buruz berbetan.**



# ZU +

## Ainhoa Mendibil

**Unibertsitateko ikaslea**

# "Herrien eta herritarren beharrak asetuko dituen unibertsitate eredua nahi dugu"

**Nondik dator Bologna prozesua?**
Europako Batasuna eraikitzeko bidean beste urrats bat da, euroa edo Europako Konstituzioa diren moduan. Herriz osatutako Europa osatu beharrean, europar hiritarrez osatutako Europa Neoliberala nahi dute, eta horretarako, hezkuntza tresna oso ona da. Zerbitzu gehienak pribatizatzea ekarriko duen Zerbitzuen Salerosketarako Akordio Orokorraren arabera, 2010erako jarriko da martxan.

**Zertan datza?**
Helburua goi hezkuntza esparrua sortzea da. Europa guztian unibertsitate eredu bakar bat izatea. Enpresa pribatuen eta merkatuaren mesedetara lan egingo duen unibertsitate bat sortu nahi da, ikasleak modu sumiso eta akritikoan heziko dituen ikasketa sistema bat, ondoren, lan mundura sartzean, enpresen eskakizunei itsu-itsuan erantzungo dien langile prekarioak izateko.

**Zein aldaketa ekarriko ditu?**
ECTS kreditu sistema ezarriko da; egungo kreditu baten 10 orduko balioa, 25 ordura igoko da, eta astean 40 ordu eskaini beharko dizkie ikasleek ikasketei. Horrez gain, karrerak gradu eta posgraduetan banatuko dira; graduetan eduki orokorra soilik sartuz, eta graduondoko ikastaroak ultraespezializatu modura emanez. Karrera produktiboetan egingo da inbertsio handiena, hain zuzen ere merkatuari eusteko helburua duten karrera horietan. Hizkuntzari dagokionez ere, eredu berdin bat inposatu nahi da, hizkuntza estandar bat. Non geratuko da euskara? Jada nahiko zapaldua bada, hirugarren plano batera pasatuko litzateke.

**Ikasleen eskubideak urratzen direla diozue...**
Espainiatik eta Frantziatik ez ezik, Europatik datorren hezkuntza sistema inposatuko digute. Enpresen mesedetara jardungo duen sistema bat izango da. Langile modura gure 40 orduak bete beharko ditugu ikasleok. Hortaz, non geratzen da euskaraz ikasteko eskubidea? Non baldintza duinetan ikasteko eskubidea? Hezkuntzarako eskubidea?

**Zein sistemaren alde egiten duzu?**
Herrien eta herritarren beharrak asetuko dituen unibertsitate eredu baten alde. Euskal Herriak herri bezala dituen beharrei erantzungo dien sistemaren alde. Ez dira berdinak Finlandiak eta Euskal Herriak dituzten beharrak. Pertsonak modu aske, kritiko eta aurrerakoian heziko dituen eredua nahi dugu, euskalduna izango dena, hizkuntzaz eta edukiz.



# + NI

## Miren Ibarzabal

Batxilergoko ikaslea

# "Bolognari buruz zerbait entzun dugunok kezkatuta gaude"

**Batxilergoko ikasleek badaukate unibertsitateko hezkuntza sisteman interesik?**
Denetik dago. Baina askok oso garbi dute, ikasi nahi dutena ikasteko bakarrik nota behar dutela, eta ez dute beste ezertan pentsatzen. Oso indibidualista bihurtzen da jendea horrelakoetan. Ez zaie inporta egin beharko duten dena, edo nola egin beharko duten, zergatik, eta zertarako. Soilik egin egingo dute, eta akabo.

**Zein da Bolognari buruz daukazuen iritzia?**
Bolognari buruz zerbait entzun dugunok kezkatuta gaude. Badakigu nondik datorren eta zein den bere helburua, eta ez dugu uste hori denik unibertsitate ereduak behar duen aldaketa.

**Batxilergoko ikasleek egiten duzue zeozer egoera hori aldatzeko?**
Hor gabiltza. Asko kostatzen da. Unibertsitatean akaso errazagoa izango da. Oraingoz behintzat. Baina ikastetxe eta eskoletan, hamasei urteko gazteak ere bost urteko umeen moduan hezi nahi gaituzte. Adierazpen askatasuna, biltzeko eskubidea eta greba eskubidea ukatzen dizkigute. Zer nahi dugun jakiteko gai ez bagina moduan tratatzen gaituzte, eta horrek norberaren heziketa prozesua eta ikasle mugimendua asko kaltetzen du. Horrela, eskola jendartetik kanpo dagoen burbuila bilakatu nahi dute; ikaslea, soilik bere ikasketetan, irakasleak jartzen dizkion azterketetan, eta atera behar duen "nota" horretan bakarrik zentratzeko. Baina poliki-poliki, gure ingurukoak informatuz, lortuko dugu eragiten diguten arazoen inguruko kontzientzia hartu eta horregatik borroka egitea.

**Bologna sistema ezartzen bada, zeintzuk izango dira ondorioak?**
Batxilerrean gauden bezala jarraituko dugu unibertsitatean. Lehen aipatutako "nota" horretan, eta oro har gure ikasketetan bakarrik zentratzea ekarriko du Bolognak. Unibertsitateko ikasleei beste ezer inportako ez balitzaie modura.

**Etorkizunari begira, zein da zure asmoa?**
Ez dut oso ziur zer egin nahi dudan, oraingoz magisteritzako karrera egiteko asmoa daukat.

**Lanbide Heziketak irteera hobeak dituela diote…**
"Irteera hobeak" esaten dugunean, zerbait ikasi, eta zuzenean lan merkatuan sartu nahi duenarentzat izan daiteke aukera hobe bat. Baina al da hezkuntza prozesuak ikasleari eskaini behar dion bakarra?

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: ***barren@elgoibarkoizarra.com***.

**Maiatzaren 17an denok Bilbora!**

Apirilak 21ean Madrilgo Entzutegi Nazionalean hasi zen Amnistiaren Aldeko Mugimendua epaitu eta zigortu nahi duen epaiketa. Baina epaiketaren lehen egunean bertan auziperatuek argi utzi zuten epaiketa horretan ezin dela Euskal Herriaren luze-zabalean errotu eta urtez urte eta belaunaldiz belaunaldi indartu den mugimendua horrela ezabatu. Errepresioak sortu duen mugimendua ezin du errepresioak gelditu. Alderantzizko bidea hartu du epaiketak, 27 lagunek erakutsi duten duintasunak eta erakutsitako jarrera irmoak Estatua bihurtu dute akusatu, errepresioaren eta bortxarik basatienaren sortzaile eta bultzatzaile izan delako Euskal Herrian azken hamarkadetan.

Bien bitartean, Entzutegi Nazionalean gure lagunek salatu duten guztiaren lekuko izan dira Euskal Herriko kaleak azken egunetan.

▷ Gezurrez eta manipulazioz estali nahi izan dituzten karga polizialak izan dira, tiroak, jipoitutako herritarrak eta ospitaleratutako pertsona helduak.

▷ Gazteen aurkako polizia operazio zabalak izan dira. Inkomunikazio egoerak eskaintzen dien inpunitatea baliatuz torturatu dituzte gazteak, horietako asko espetxeratuz eta espainiar kartzeletan sakabanatuz.

▷ Mikel Ibañez preso politiko elgoibartarra UVIn ospitaleratuta izan da, osasun arazoak medio, osasun asistentziarik ez jasotzearen ondorioz. Beste preso bat, jasaten dituen atake epilektikoak medio, ospitaleratua izan da. Eta beste bat gose greban dago une honetan, beharrezkoa duen osasun asistentzia aldarrikatuz.

▷ Euroagindu bidez espainiaratu dituzte bi euskal herritar, torturapean egindako deklarazioen ondorioz.

Azken gertaerak izan dira horiek, baina ezin ahaztu oraindik orain gaixotasun larriekin dauden hamabi presoak bizi arteko zigorra ezarri diotenak, etxetik ehunka kilometrora daudenak.

Hau da egun Euskal Herrian bizi dugun errealitatea. Eta errealitate hau da, errealitate errepresibo hau da ezinbestekoa egiten duena Euskal Herrian Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren existentzia.

Errepresio arozik gogorrena bizi dugun honetan saiatzen ari dira Amnistiaren Aldeko Mugimendua ezabatzen. Errepresio arorik gogorrena bizitzen ari garen honetan saiatzen ari dira errepresioaren bidez salaketa ezabatzen. Ehunka herritar atxilotzen ari diren garaiotan (lau hilabetetan, 138), nahi dituzte operazio guzti horien aurkako mobilizazioak isiltzea. Tortura testigantza basatiak jasotzen ari garen honetan, bihurtu nahi dute tortura ikustezin.

Errepresioaren lekuko zuzenak izan gara azken urteotan. Ondo ikasi dugu espainiar demokraziak zer esan nahi duen gure herrian. Horregatik esaten dugu esaten duguna. Horregatik dugu argi errepresioak dirauen bitartean, errepresioaren salaketa egongo dela Euskal Herrian, horregatik dugu argi presoak dauden biartean elkartasuna, laguntza eta amnistiaren aldarrikapena egongo direla Euskal Herrian.

Maiatzaren 17an, arratsaldeko 17:30ean, Bilboko Aita Donostiatik abiatuko den nazio manifestazioan parte hartzeko deia egiten dizuegu, "Euskal Herriak Askatasuna behar du" lemapean.

**Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimendua**



# ESKERTZA

2008ko maiatzaren 7an hil zen *Isabel Soto Gonzalez* andrearen sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea: ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Asier Orbea, Oier Narbaiza, Andoni Iturbe PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Oihana Tarragual, Ibai Portu, Ane Odria, Maialen Olazabal, Andres Alberdi, Anjel Ugarteburu, Abel Irizar, Alberto Agirreazaldegi, Sugar Etxaniz, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Eva Garcia, Miriam Garcia, Jesus Mari Makazaga, Juanito Gorostiza. INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.650 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855



**Miriam Garcia**

Oroitzapen guztiak maleta baten barruan sartu ahal izango banitu, gehiegizko ekipajea eramateagatik errekargua ordaindu beharko nuke. Bada denboraldi bat bidaietan eta maletetan besterik ez dudala pentsatzen. Zuk zure Hego Ameriketako abentura hasi duzulako edo nik nire etapa italiarraren amaiera gero eta gertuago ikusten dudalako izango da. Hainbeste denboraren ondoren, zaila izango da momentu eta pertsona batzuengandik alde egitea… baina, gauza materialei dagokienez, zer balore ematen diegu benetan objektuei? Zein momentutan lagatzen dio objektu batek objektua izaten oroitzapen bihurtzeko?

## "Egoera limiteetan garrantzi handiagoa ematen diogu alde emozionalari"

Gogoan daukat orain dela pare bat urte egunkarian agertutako argazki bat: begirada goibela zuen adineko emakume txiki bat etxe aurreko espaloian geldirik zegoen norbait itxaroten egongo balitz bezala, esku batean maleta bat eta bestean saski txiki bat zituelarik. Bartzelonako El Carmel auzoko auzotar bat zen eta, beste askok bezala, metroaren zabalkuntzaren lanen ondorioz izan ziren arazoak zirela eta, bere etxetik alde egin behar izan zuen etxea hustutzeko ere denborarik izan gabe. Artikuluak zioenez, auzotarrak haien etxeak lurreratu izan ziren lekura bueltatzen ziren oroitzapenen bila. Inork ez zituen zartaginak, erlojuak, dirua edo orokorki erabilgarriak diren gauzak bilatzen, baizik eta argazki album bat, paper horixka baten idatzitako gutunen bat, gantxilloz egindako ohazal zahar bat… Egoera limiteetan garrantzi handiagoa ematen omen diogu alde emotzionalari, praktikoari baino. Zer sartuko dut nik nire maletan hemendik joaten naizenean?



**Eva Garcia**



Egia da. Oso zaila da maitatzen ditugun gauzez desegitea "gureak" direlako. Baina, sarritan, lotura hori apurtzea beharrezkoa da aurrera egiteko. Ez dago beste biderik. Orain maletak egin eta desegiten ditut egunero, eta sentimenduekin lotuta ditudan objektuengandik alde egiten ikasi dut. Aurrera begiratzeko beharraren erantzun natural bat iruditzen zait. Azken finean, gauzengan sentitzen dugun atxikimendua aldaketei erresistentzia errepresentatzen duen ilusio bat baino besterik ez da. Batzutan, gauza materialak aingurak bezalakoak dira: segurtasuna ematen digute eta gure estima hobetzen dute, baina, azkenean, atxilotzen gaituzten oztopo bihurtzen dira, haien gatibu bihurtzen gara eta askatasuna galtzen dugu.

## "Nik nahiago dut aurrera begiratu eta atzean utzi atzean uztea merezi duena"

Oroitzapen batez libratzen garenean gure bizitzaren apur bat galtzen dugula sentitzen dugu, baina, aldi berean, identitate zahar batez ere libratzen gara.

Beharbada, gauza berbera egin beharko genuke gure arimarekin. Zakarrontzira bota beharko genuke zaharra dugun guztia; ezertarako balio ez zaizkigun ohiturak, gauzak, pentsakerak eta ekintzak burua nahasten dizkigutelako. Behinola bizi izandako oroitzapenak dira bakarrik, eta beste gauza hobe batzuk okupatu zezaketen lekua hartzen dute. Gure bizitza maleta edo armairu baten moduan begiratuko bagenu, ez litzateke egon behar "barruan" dagoena argitasunarekin ikustea galerazten duen ezer ere.

Nik nahiago dut aurrera begiratu eta atzean utzi atzean uztea merezi duena.

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT

Hamabost minututik behin egongo dira trenak Elgoibar eta Ermua artean 2009ko udazkenetik aurrera.

## Erabiliko duzu tranbia zerbitzua?



**Nieves Iza**

**78 urte, etxekoandrea**

Ez naiz trenean ibiltzen; nahiago dut autobusa. Niretzako erosoago da autobusa, baina ondo iruditzen zait zerbitzu hori jartzea eta garraio publikoak bultzatzea.



**Puri Garcia**

**77 urte, etxeko andrea**

Bai, Eibarrera joaten naiz trenean. Pozik nago. Trenean ibiltzen naiz, eta nahiko erosoa da. Bi tren geltokiak etxetik gertu ditut, eta jubilatua naizenez, merkea da trenean ibiltzea.



**Elena Rodriguez**

**31 urte, kirol monitorea**

Ez dut erabiliko. Autobusean gehiago ibiltzen naiz trenean baino. Mendarora jarri beharko lukete tranbia. Ez dute esaten tranbiak ez duela kutsatzen eta autoak bai?



**Mari Carmen Otero**

**37 urte, fruitu saltzailea**

Ez, ez dut erabiliko. Nire ustez, Elgoibartik Plaentxira jarriko balute, hobe. Autoa erabiltzen dut autobusen ordutegiengatik, bestela garraio publikoa erabiliko nuke.

## 10eko TXIKIAN



## MARIA BLANCO

*Herri eskolan egiten du lan*

**1. Herriko txokorik gustukoena?**
Madalako gunea da nire txokorik gustukoena.

**2. Zer falta zaio Elgoibarri? Eta zer dauka soberan?**
Bizikleta gainean ibiltzeko lekuak falta zaizkio. Ez dut uste soberan ezer ere duenik.

**3. Egia da jendea oso gutxi mugitzen dela?**
Bai, gutxi mugitzen da jendea, jaiak antolatzeko adibidez. Jaiak ere ez dira apartak, baina pixkanaka jendea mugitzen ari da, danborradarekin pasatu den moduan.

**4. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?**
Joseba Etxeberria.

**5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?**
Ez, gutxi. Nire seme nagusiari saskibaloian jokatzea gustatzen zaio, eta saski bat topatzeko herri eskolara joan behar du. Lehen IHMra ere joaten zen, baina kendu egin dute.

**6. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzera?**
Ondo dago, antzerki emanaldiak ondo daude, eta umeentzako egiten diren ekintzak ere ondo daude. Elgoibarko Izarra, Atxutxiamaika bereziki, lan polita egiten ari da.

**7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?**
Ez dut uste. Presan bainatutakoa naiz, baina ibaian bertan ez.

**8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?**
Bai, baina Gasteizekin ez.

**9. Nolakoak gara elgoibartarrak?**
Ez itxiak, ez irekiak. Bakoitzak bere koadrila du, eta zaila da bertan bertan sartzea.

**10. Behar duzun guztia daukazu herrian?**
Bai, herri polita da. Denetik du eta herriaren irudia aldatzen ari dira eraikinak berriztatzean. Ez nintzateke beste leku batera bizitzera joango. Umeak izaten diren unetik, lotura handitu egiten da.

**Gabriel Krutzelaegi auzoan ez dute belarra mozten:** “Belarra oso luze dago Gabriel Krutzelaegiko etxebizitzen atzeko aldean. Urtean behin bakarrik etortzen dira lorezainak ingurune honetara. Udalak diru mordoa gastatzen du berdeguneak zaintzeko, baina gure auzoan, bidea ikusi ere ez da egiten. Udaberrian sarriago moztu behar da”.





**Harrizko piboteen ondorioz ezin da ondo aparkatu Ubitarten:** “Espaloi gainean ez aparkatzeko harrizko piboteak daude Ubitarte kalean, baina ondo aparkatzeko ere oztopo dira. Autoarekin maniobrak egiteko traba egiten dute, eta behin baino gehiagotan eman diet piboteei kolpea. Autoa behin baino gehiagotan hondatu zait”.

**Txalo bat Udalari, Basarte auzoan autoentzako zentzu bakarra jarri duelako:** “Bazen ordua! Basarte auzoan autoentzako norabide bakarra jarri dute, kale batetik sartu eta bestetik irteteko. Modu horretan, kaleen bi aldeetan aparkatu daiteke autoa, eta aparkaleku berri mordoa sortu dira. Beste leku batzuetan ere egin beharko lirateke horrelako gauzak, Urasandi edo Sigma auzoetan, esate baterako”.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko:*barren@elgoibarkoizarra.com* 943-74 41 12

---

# ESKERTZA



*Nun zauz laztana*
*nun zauz,*
*hainbeste bider esana,*
*nun zauz laztana.*

*Anjela Pujana Garate*

2008ko maiatzaren 7an hil zen

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana, eta gonbidatzen zaituzte hurrengo domekan, goizeko 10:30etan, Sallobenteako elizan bere alde izango den mezatara.*



# Elgoibar eta Ermua arteko tranbia zerbitzua 2009ko udazkenerako jarriko dute martxan

## Toletxegaineko apeaderoa egokitzeko 700.000 euro erabiliko ditu Euskotrenek

Ordu laurdenero izango da tranbia zerbitzua Elgoibar eta Ermua artean, 2009. urteko udazkenetik aurrera Nuria Lopez de Guereñu Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailburuak azaldutakoaren arabera. Gaur egun, ordubetean behin eskaintzen den zerbitzua hamabost minuturo eskainiko da, beraz, Maltzagako trenbide bikoizketari esker. Bazterbide berri hori funtsezko pausoa izango da, gaur egun, Ermua eta Eibar artean eskaintzen den tranbia zerbitzua Elgoibarreraino luzatu ahal izateko.

### Apeaderoko lanak

Eusko Jaurlaritzak 16,4 milioi euro inbertituko ditu Elgoibar eta Ermua arteko trenbidean hobekuntza lanak egiteko, eta horri esker, trenen maiztasunak handitu ahal izango dira eta herritarrentzako tren zerbitzua hobetu. Lan horien artean, 700.000 euro erabiliko ditu Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan Sailak Toletxegaineko apeaderoa egokitzeko.




### 1.750.000 bidaiari urtean

Gaur egun 11.143 mugimendu gertatzen dira astegunetan Ermua eta Elgoibar artean, hau da, urtean 3.510.000 mugimendu.

Eusko Jaurlaritzak iragarri dituen jarduerekin, bidaiari kopurua %25 haztea aurreikusten da, hau da, 437.000 bidaiari gehiago urtean, gutxi gorabehera. Ermua-Elgoibar-Ermua ibilbidean, 870.000 mugimendu gehiago izango lirateke urtean.

## Altzolako trafiko arazoentzako irtenbide bila ari da Foru Aldundia



Eneko Goia Bide Azpiegituretarako foru diputatua Olasoko errotonda egiteko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Elgoibarko Udalaren arteko lankidetza hitzarmena sinatzera etorri zen maiatzaren 9an. Bisita hori aprobetxatu zuen Altzolan sortzen diren trafiko arazoak konpontzeko irtenbideen berri emateko. Gune horretan gidariek hartzen duten gehiegizko abiadura eta auzorako sarrera-irteera arriskutsuak dira konpondu beharreko arazoak.

Altzola auzoko sarrera-irteerak errazteko errotonda bat (Altzolabe baserriaren parean eraiki zitekeela aipatu izan da aurrez) jartzeko leku nahikorik ez dagoela azaldu zuen diputatuak. Hortaz, "behin betiko informeak amaitzeke badaude ere, sarrera eta irteeretarako erreil berriak egitea" izan daiteke aukerarik egokiena aurreratu zuen.

Autoen gehiegizko abiadura gutxitzeko errepidea estutzea da aukerarik onena. Zirkulazioa bereiztuko lukeen irlatxo bat jarriz, bidea estutu eta gidariek abiadura moteltzeko joera dutela azaldu zuen Eneko Goiak.

## Protagonista Fernando Bautista



Ibizan bizi den elgoibartarra da Fernando Bautista. Maiatzean Iberiako Penintsulari buelta eman zion kostaldetik motoz, lau egunetan eta bera bakarrik. Irteera eta amaierako data zeuzkan, maiatzaren 1etik 4ra, eta tartean lagun eta toki jakin batzuk bisitatu nahi zituen. Gainontzeko guztia bidean erabakiko zuen. Etapa batean Elgoibarren egin zuen geldiunea. Senideak eta koadilakoak bisitatu eta Plaza Handian atera zuen erretratua. 4.400 kilometro egin zituen guztira. Informazio gehiago eta argazkiak ikusteko: *www.elgoibarren.net*

## Berbia Arau subsidiarioak

Hiri-antolamendurako Plan Nagusiaren (HAPN) bitartez, 1992ko arau subsidiarioak berritzeko prozesua hasi du Udalak, eta bertan herritarren ahotsa kontutan hartzeko asmoa du. Gizarteko hainbat sektoretako 52 herritar gonbidatu ditu Udalak prozesuaren lehen zatian parte hartzeko. Alderdi politikoek adostuta egin da herritarren aukeraketa, eta uda ondoren hasiko da bigarren fasea. Elgoibarko Ezker Abertzaleak arau subsidiarioak berritzeko beharra behin eta berriz aipatu du azken urteotan, baina ez dago prozesu horrekin konforme, euren ustez ez direlako herritar guztiak kontuan hartu. Alkateari herritarren zerrenda berria bidali diote, eta parte hartu nahi duten herritar guztiei ateak irekitzeko eskatu du. Interesatuek *einbiou@euskalerria.com* helbidera bidali ditzakete iritziak.

## Txokoa Bolatokiko komunak

Elgoibarko Udalak 48.500 euro erabiliko ditu Bolatokiko komun publikoak berritzeko. San Bartolome parrokia eta Ubitarte artean dauden komunak askotan itxita egoten dira, eta Udalak konpondu eta erabilgarri jartzeko ardura hartu du bere gain. Bestalde, Altzolako Zelaia parkean automatikoki garbitzen den komuna jarri dute. 52.000 euroko kostua izan du.



### Herri Batasunaren 30. urteurrena

Herri Batasuna sortu zela 30 urte direla-eta, Elgoibarko Ezker Abertzaleak erakusketa antolatu du. Maiatzaren 19tik 22ra arte egongo da ikusgai Kultur Etxeko sotoan, 18:00etatik 21:00etara. Hilaren 22an, bestalde, hitzaldi bat eskainiko dute eta maiatzaren 24an, Plaza Handian bilduko dira ekitaldi bat egiteko eta ondoren, herri bazkaria izango da.

### Bidaiateka hilabetea

Gazte Informazio Bulegoa *Bidaiateka Hilabetea* antolatzen ari da ekainerako. Oporretan joateko herrialdeei buruzko informazioa eskaintzeko hitzaldi praktikoak izango dira. Arduradunek herritarren interesak ezagutu nahi dituzte. Eskaerak 943 74 14 61 telefonoan.

### 1943an jaiotakoak

1943an jaiotako elgoibartarrek, 65. urteurrena ospatuko dute maiatzaren 24an. Meza izango dute lehenengo, ondoren argazkia aterako dute eta eguerdian bazkaria egingo dute Sigma jatetxean.

### Errepresioaren kontrako manifestazioa bihar, Bilbon

Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, errepresioaren kontrako nazio manifestazioa egingo da bihar, maiatzak 17, Bilbon. Debabarreneko talde eragileak prentsaurrekoa eskaini zuen Eibarren, eskualdeko herritarrei manifestaziorako deia egiteko.



## Osasuna

Mertxe Lariz eta Susana Saez

# “Pisua buruan dago, ez gorputzean”

**“Mirari dieten iruzurra” izango dute hizpide Mertxe Larizek eta Susana Saezek, Pedro Ramos mediku eta irakasle ezagunarekin batera, maiatzaren 20an, Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 18:00etatik aurrera. Helburua elikadura egokiaren garrantzia azpimarratzea izango da. Datuen arabera, euskaldunok asko jan bai, baina gaizki elikatzen dira asko. Era berean, merkatuan saltzen diren sasi produktu askoren arriskuaz ohartaraziko dute.**

**Andoni Iturbe**



Non daude komunikabide eta iragarkietan ustez perfektuak diren modelo horiek?”, galdetzen dute Mertxe Lariz eta Susana Saez adituek. Irudiak gero eta lehentasun handiagoa duen sasoi honetan, osasuna dela garrantzitsuena aldarrikatu nahi dute. “Jendeak gero eta interes gehiago du elikaduraren inguruan, baina ez du neurririk hartzen. Askok uste dute oso ondo jaten dutela”, adierazi dute. Horregatik, lehenik eta behin, elikaduraz hitz egingo dute hilaren 20an emango duten hitzaldian. Osasunak eta elikadura egokiak, aditu guztien esanetan, bat egin behar dutelako.

### Loditasunarekin beste gaixotasunak sortzen dira: bihotzeko arazoak…

“Arazo larri mordoa dago osasunaren inguruan, gero eta lodi gehiago dagoelako, eta loditasunarekin beste gaixotasunak sortzen dira”, argitzen dute. Hori dela eta, jaiotzetik haurrari behar dituen elikagai guztiak eman behar zaizkiola gaineratu dute, txiki-txikitatik ohitura osasungarriak hartu behar direlako. “Haurrek ez dute ganoraz gosaltzen, ez dute otartekorik edo fruiturik jaten eta askotan, hamaiketakoaren partez, opilak *irensten* dituzte”, diote. Horregatik, euren egitekoa ere bada jendeari eta euren bezeroei, zer jan baino gehiago, bitamina eta gainontzeko mineral eta beharrezko

osagaiak hartzearen garrantziaz ohartaraztea. Eta ahalik eta azkarren bada, hobe. "Umea ondo elikatzen ez bada, arazoak datoz. Ume askok helduen gaixotasunak dituzte", ondorioztatzen dute.

### Engainatzen duen publizitatea

Guztira, 321 produktu erretiratu zituzten iaz botika eta belar dendetatik. "Iragarkien bidez, jendeak pentsarazi nahi du produktu bat erosiz bere helburuak lortuko dituela. Hori ez da egia. Produktu horrek lagundu dezake argaltzen, baina soinketa, ura eta elikadura egokiaren bitartez. Baina erosoago da pentsatzea pilula horrek miraria egingo duela. Pilula bakar batekin ezin da pisu ideala lortu", gaineratu dute.

Gainera, engainatzen duen publizitate horren ondorioz, pisua galdu beharrean, asko loditu egiten dira. "Horrek atsekabetu egiten ditu. Kontuan eduki behar da pisua ez dagoela gorputzean, buruan bazik", diote. Aholkulari horien arabera, norberaren gorputzak zer behar duen aztertu egin behar da: "Autoari gasolina bukatzen zaionean, gasolindegira joaten gara gasolina botatzera, ez olioa edo gurpilak haizez betetzera".

### Aholkularitza

Hitzaldiaren ostean, solasaldia egingo dute ikus-entzuleekin. "Elikaduraren eta dietaren artean bereizten dugu. Hitzaldian ez dugu dietez berba egingo. Ordu eta erdi inguruan, jendeari ere gure enpresa ezagutarazi nahi diogu. Gure produktuek ere ez dute miraririk sortzen", argitzen dute. Izan ere, askotan jendea emaitzekin bakarrik geratzen dela uste dute.

"Bezero batek 20 edo 30 kilo galtzen baditu, ez da produktu jakin bategatik. Neurri guzti horien atzean, esfortzua eta konstantzia dago. "Guztia aztertzen dugu: noiz jaikitzen den, zer egiten duen, zer jaten duen... eta gero sendagileek erabakitzen dute zer aholkatu", diote Mertxek eta Susanak.

## PEDRO RAMOS

Pedro Ramos elikadura gaietan aditua da. Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea da, eta eguaztenero, ETB-2ko *Pasalo* saioan gai horren inguruan jarduten du. "Irakasle ona, hurbila eta komunikatzaile trebea da", diote Mertxek eta Susanak. Ramos doktorea Elgoibarren izango da, mirari-dieten arriskuak azaltzeko.

## ZIKLOA

Elgoibarren emango duten lehen hitzaldia izango da. Baina Euskal Herriko herri askotan ibilitakoak dira. Kirolaren inguruan ere solasaldi asko egiten dituzte, eta maiatzaren 20a eta gero, litekeena da hitzaldi-ziklo bati ekitea. "Elikaduraren inguruan beti dago zerbait ikasteko, eta galdera asko sortzen dira", diote.




## MUTIL ETA NESKA LODIAK



Neska-mutil lodien ezaugarriak hauek dira: ariketa fisiko gutxi egitea, eguerditik aurrera jaki gehiago hartzea eta telebistaren aurrean denbora asko ematea. Ezaugarri horiek obesitatearen sortzaile zein ondorio dira.

Umeen jan-ohiturek ere aldaketak jasan dituzte: ordutegian, maiztasunean, eskaeran... Umeak otordua noiz eta nola egiten duen familiaren ongizatearen erakusle eta neurgailu interesgarria izan liteke. Arazoa kezkatzeko modukoa da. Ume eta nerabe lodiek besteek baino odol-tentsio eta kolesterol-neurri handiagoak dituzte; honi ariketa fisiko gutxi egitea gehitzen badiogu, ume obesoak arteriopatia-mota bat (bihotzeko infartoa, burmuineko baso-gaixotasuna...) izateko arrisku handiagoa izan dezakete. Osasuna jaiotzetik zaindu behar da.



## Gure berbak

**Aditza (16): NOR-NORI-NORK iragana plurala**

NOR-NORI-NORK aditzen iraganeko formak dittugu gaur ere, objektua eta zehar-objetua plurala debenak. Hónek dira aditz-forma erabilixenak:

- Neutruak: *Liburu bi erosi* ***niuezen*** *atzo laguneri; liburu bi erosi* ***ziuezen*** *harek laguneri; liburu bi erosi* ***giñozen*** *guk; liburu bi erosi* ***ziñuezen****; liburu bi erosi* ***ziñuezen****; liburu bi erosi* ***ziuezen*** *gurasuak seme-alaberi.*
- Hikakuak (giz.): *Liburu bi erosi* ***najauezen*** *laguneri; hik liburu bi erosi* ***ziuazen*** *laguneri; liburu bi erosi* ***jauezen*** *harek; liburu bi erosi* ***giñuazen*** *guk; liburu bi erosi* ***jauezen*** *gurasuak seme-alaberi.*
- Hikakuak (emak.): *Liburu bi erosi* ***najaonezen*** *laguneri; hik liburu bi erosi* ***zionazen*** *laguneri; liburu bi erosi* ***jaonezen*** *harek; liburu bi erosi* ***giñonazen*** *guk; liburu bi erosi* ***jaonezen*** *gurasuak seme-alaberi.*

*Zuek hari* eta *haiei* kasuetan, eta *hárek (haiek) hari* eta *háreri* kasuetan, *hari* edo zehar-objetua *(háreri)* esplizitatuz ziurtatuko dogu informaziua, formaz berdinak dira-eta singularrekuak eta pluralekuak: horrela eta testuinguruaren laguntziarekin lortuko dogu bata eta bestia bereiztia (oso inportantia da beti testuinguruaren laguntza hori, egoera bakoitzian interpretazio egokixa egitteko).

Jesus Mari Makazaga

## Erretratu zaharra

### 1966

Aste honetako erretratu zaharra herritar batek laga digu. 1966. urteko uztailaren 3an aterata dago argazkia, Mendaroko Agarre kobazuloan. Argazkian azaltzen den lagun koadrilak bazeukan ohitura irteerak egiteko, eta egun horretan kobazulora joan ziren. Begiratu batean, denak pozik eta irrifartsu azaltzen dira. Ikus dezagun zeintzuk diren argazkian agertzen diren mutil gazteak.

**Ezkerretik eskumara, goiko ilaran:** Antonio Arrillaga, Peio Arrieta, Anton Zabaleta, Julian Azkue, Sabin Etxaniz eta Ion Arrieta.

**Behean:** Antonio Jesus Astigarraga.



URKIDI
AHOLKULARITZA
Liberty Aseguruak
Antonio Urkidi
Josefina Fernandez
Tel.: 943 74 18 91
Faxa: 943 53 01 49
Kalamua, 12

Mahape taberna

Orain astegunetan
San Frantzisko, 60
tel: 943 74 19 43

# OSASUN GIDA

## Nutrizioa, elikadura eta pisua kontrolatzea



**Eider Oiarzabal Tapia**
*Dietista*

KEMEN BELARDENDA

E**likaduraz** hitz egiten dugunean, organismoari behar-beharrezko elikagaiak emateko erari buruz ari gara. Prozesu horretan garrantzitsua zera da: kontzientea da, borondatezkoa eta, beraz, hezteko modukoa.

**Nutrizioa**, definizioz, prozesu multzoa da, izaki batek (eta gure kasuan gizakiak) kanpotik elikagai erara hartutako substantzia batzuk erabili, eraldatu eta eransten dituena, energia jasotzeko, egitura organikoak eraiki eta konpontzeko, eta prozesu biologikoak erregulatzeko.

**Dietetika**, berriz, elikagaien konbinazio egokia da, gizabanakoak bere egoera konkretuen araberako nutrizio egokia izan jaso dezan, beti ere modu nahikoan, orekatuan eta anitzean.

**Dieta erraza**: proposatzen dugun dietak bi atal dauzka. Lehenengoa, argaltzeko, gehiegizko pisua dagoenean: aholkatutako elikagaietatik nahi beste jan daiteke, egunean behar den aldioro, eta ordua kontuan hartu barik. Elikatzeko jarraibideak errazak dira eta sukaldatzeko era aldatu egin daiteke.

Bigarren atala pisuari eusteko da, konstituzioarekiko pisu egokia lortutakoan jartzen dena. Horren bidez, elikagaiak modu orekatuan konbinatzen ikasten da batez ere, lortutako pisuari egunez egun eusteko.

---

### MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

*Kemen Belardenda*
*Berria!!! Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.*
("Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L, makrobiotika, janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak).
San Bartolome, 25
Tel: 943 74 40 31
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

*Sanatana Dharma Yoga Elkartea*
Urasandi, 9
Tel: 943 74 85 93 (Idoia)
685 722 131
Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
*Mendaro*
Astelehen eta asteazkenetan:
10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

### OPTIKAK

*Ikus optiko-optometrista*
San Bartolome, 10
Tel: 943 74 37 34
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

*Uzuri*
(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria) San Frantzisko, 21
Tel: 943 74 03 59
Egunero: 9:30-13:00 / 16:30-20:00

### HORTZ KLINIKAK

*Irale*
Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar)
Tel: 943 74 36 79
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 17 71 34
e-posta: irale@irale.com
webgunea: www.irale.com

### ORTOPEDIAK

*Itziar Sarasketa*
San Frantzisko, 12 - Tel: 943 74 35 62
Egunero: 9:30-13:00 / 17:00-20:00

### MASAJISTAK

*Victoria Iraegi*
(Esku- terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea.)
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea)
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera 8:00 - 14:00

### FISIOTERAPIA

*Ainhoa Fisioterapia*
Eragozpen fisikorik egongo balitz, etxez etxeko zerbitzua eskainiko litzateke.
Tel. 943 53 19 53 / 669 565 745 (Goiz eta arratsaldez)
Jausoro, 6 behea

### PODOLOGOAK

*Oinberri*
Errosario kalea, 25
Tel: 943 74 17 95
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

# Jende gutxiago ibili da aurten Galiziako Letren Astean, barixaku eta zapatuko eguraldi eskasarengatik

## Egindako lanarekin pozik agertu dira Galizia Etxeko antolatzaileak

Euria eta euria. Horrela jardun zuen barixaku iluntzean eta horrela segitu zuen zapatuan ere. Ondorioz, Galiziako Letren Astea ez zen beste urteetan bezain jendetsua izan. Era guztietara, domekan eguzkia irten zen eta jende gehiago animatu zen. Gumersindo Vila antolatzailea sentsazio gazi-gozoarekin gelditu da: pena dauka egindako lanaren ostean eguraldi txarrak ez zuelako lagundu, azken batean hori ez dago-eta euren esku; baina aldi berean pozik dago egindakoak "txukun" irten direlako.



### Zapatu arratsaldean, hobeto

Hasierako ospakizunetan aurrekoetan baino jende gutxiago izan bada ere, zapatu arratsaldean Haritz dantza taldearen emanaldira hainbat lagun hurreratu zirela nabarmendu du Vilak. Dena dela, domeka eguerdian eguraldiak hobera egin zuenez, jende gehiago hurreratu zen, eguzkiak lagunduta. Bazkarian Gaita-joleen doinuekin sekulako giroa izan zen.

## Coviran supermerkatuak irabazi du danborradako eskaparate lehiaketa

Coviran supermerkatuak danborradako eskaparate lehiaketako lehenengo saria eskuratu du. Hortaz, 300 euroko saria jasoko ditu gaurko sari banaketan, barixakua, 19:00etan Kultur Etxean. Ferpi Arreglos dendaren eta Ize liburu-dendaren eskaparateak ere goraipatu ditu epaimahaiak. "Sorpresa izan da lehenengo lehiaketa izanik, dendari batzuk nola inplikatu diren, eta ilusio hori baloratzeko modukoa dela iruditu zaigu", epaimahaiaren arabera.



### Asteburuan, soinu zahar eta aurresku txapelketako finala

Andrea Arregi elgoibartarrak irabazi du soinu zahar txapelketako liga A sailean eta Ane Espilla eta Maria Ferreiro elgoibartarrek B sailean. Gainera, beste elgoibartar batzuk ere sailkatu dira domekan Legazpian jokatuko den finalerako: A sailean, Nora Kortaberria, Naia Makazaga, Maddi Mendibil eta Miren Astigarraga; B sailean Arantxa Ferreiro, Nerea Perez, Iraitz Gonzalez eta Nerea Badiola. Elgoibarko mutilek ere maila bikaina erakutsi dute, eta Aitor Asenjo eta Imanol Iturrino Oreretako finalean izango dira bihar, zapatua.

murrplastik
■ KABLEENTZAT KATEAK
■ IDENTIFIKAZIO SISTEMAK
■ KABLEENTZAT PLAKAK
■ TUBOAK ETA ERRAKOREAK

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar
★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
★ MULTIKOPISTAK
★ FOTOKOPIADORAK
★ ERLOJU INDUSTRIALAK
★ MARRAZKETA MATERIALA
★ INFORMATIKA
★ FAX

# “Ufaka Zanpaka” dantza ikuskizunarekin hasiko dira gaur gauean Trinitate jaiak

## Ardoa izango denez danborradako gaia, bihar arratsaldean Errioxakoa eskainiko dute

Asteburu honetan ospatuko dituzte elgoibartarrek Trinitate jaiak, eta egitaraua gaur bertan hasiko da (barixakua), Burrunka taldearen *Ufaka Zanpaka* dantza ikuskizunarekin. Dena dela, ekitaldi garrantzitsuenak bihar eta etzi izango dira.

Trinitateetako azoka berezia hamarretan zabalduko dute bihar. Elgoibarko baserrietako produktuak erosteko aukera izango da bertan. Azokaren inguruan, makina bat ekitaldi izango dira, gainera: abere erakusketa, trikitilariak, ardi txakurrak, dantzariak…

Aurtengo nobedadea, baina, ardo dastaketa izango da. Danborradak antolatuta, goizeko 11:00etatik aurrera Errioxako ardoa eskainiko dute Nafarroa Plazan, Leku Ederren eta Plaza Handian. Izan ere, ardoa izango da danborradak aurtengorako aukeratu duen gaia.

Domekan, Trinitate egunean, artisau azoka izango da ekitaldi nagusia, umeen danborradarekin batera. Artisau azoka honetan, kanpotik etorritakoez gain, Elgoibarko hauek izango dira: Irati Agirreazaldegi, Jose Membrillera, Antxon Fresnedo, Sabin Oregi, Carmen Elorza, Garbiñe Osa, Jean Paul Avila, Karkizano denda eta Egur tailerra.




### Mitologia jaietan

Burrunka taldearen *Ufaka Zanpaka* dantza ikuskizunak ekarriko du aurtengo Trinitate jaien hasiera. Euskal mitologian oinarritutako lan hori 22:00etatik aurrera eskainiko dute Herriko Antzokian. Euskal musika tresnak (gaita, eskusoinua…) munduko beste leku batzuetako perkusioarekin lotu dituzte. Ikuskizuneko sarrerak 8,5 euro balio du eta aldez aurretik eskuratu daitezke Pitxintxu liburudendan.

# Hainbat ekintzaileren esperientziaren berri izan zuten Institutuko ikasleek joan den barixakuan



Aurreko barixakuko ekintzaile egunean, hainbat esperientzia martxan jarri dituzten pertsonak ezagutzeko aukera izan zuten Institutuko ikasleek.

Hiru ekintzaile gerturatu ziren ikastetxera: lehenengoa Javier Valdivieso ikasle ohia izan zen, automozio tailerra sortu zuena; bigarrena, Mari Carmen Seijas, administrazio eta finantza ikasle ohia, Kutxan lan egindakoa eta enpresetan hobekuntzak bideratzeko trebea dena; azkenik, azkenik beste ONG batekin kolaboratzen diharduen Aitor Azpiroz zarauztarraren testigantza jaso zuten ikasleek.

### Zaharberritutako altzari erakusketa

Eskuz elkarteak zaharberritutako altzariekin erakusketa eskainiko du maiatzaren 23tik ekainaren 1era Kultur Etxeko erakusketa gelan. Astelehenetik zapatura 19:00etatik 21:00etara ikusteko aukera izango da. domeketan, berriz, 12:00etatik 14:00etara.

### “Berria-k” bost urte

Ekainaren 21ean bost urte beteko ditu “Berria” egunkariak. Hori dela eta, Debabarrenean ere ospakizuna prestatu dute: maiatzaren 22an, Eibarko Markeskua jauregian ekitaldi berezia izango da nahi duen edonorentzako.

# Hamar harri-jasotzailek erakustaldia egingo dute bihar Mintxetaren omenez

## Plaza Handian jardungo dute, eta euria egiten badu, Ikastolan

Trinitate jaietan, kirolak ere izango du lekua. Bihar, 19:00etan hamar harri-jasotzaile bilduko dira Mintxetaren omenez. Goenatxo aita-semeak, Aimar Irigoien, Joseba Ostolaza, Elosukorta, Eizmendi, Sarube, Egi, Goikoetxe eta Miren Urkiola arituko dira nor baino nor. Azken hori hamalau urterekin hasi zen harriak jasotzen Zelaik bultzatuta. Hamairu urterekin 50 kiloko bi txinga jasotzen *harrapatu* zuen, eta indarra zuela ikusita, probatzeko esan zion. Bera izango da ikuskizuneko jarraituenetakoa. Gaur egun bi neska daude harri-jasotzaile fitxarekin, eta Araban bada beste bat bola batekin erakustaldiak egiten dituena.

Elgoibarko Lagun Artea herri kirol taldeak antolatu du omenaldia, eta bertako kideak ibiliko dira Plaza Handian trontzan eta ingudea altxatzen.

### Xake txapelketa

Xake zale gazteenek ere aukera izango dute bihar jokatuko den norgehiagokan parte hartzeko. Zubi Ondo xake elkarteak antolatu duen txapelketan, 11:00etan umeentzako kanporaketa egingo da eta, 16.00etan taldeka. Giza Eskubideen parkean jokatuko dira partidok.



Bestalde, ardi txakurren erakustaldia ere egingo da, antzar eta guzti, Nafarroa Plazan. Debemenek, Elgoibarko Udalak eta Lagun Artean antolatu dute.

### Eskubaloia

Gaurtik hasita, Elgoibarren Espainiako txapelketako zonaldeko faseko partidak jokatuko dira Olaizagan. IMH Elgoibarrek Camargoren aurka jokatuko du gaur 17:30ean; bihar, Itxakoren aurka, ordu berean; eta domekan, Kataluniako La Garrigaren aurka, 12:00etan.

### Ruizi omenaldia

Sanlo-EKT taldeak Jose Manuel Ruiz omendu zuen pasa de maiatzaren 3an azken bederatzi denboraldiotan eskubaloiaren alde egin duen lanarengatik. Basarten egin zen afarian, Alfredo Etxeberria alkateak oroigarria eman zion.





# Astelehenean hasiko dira gazteen tenis txapelketako kanporaketak

## Benjaminek, alebinek eta infantilek hartuko dute parte

Basarte tenis elkarteak, 40/15 tenis klubak eta Elgobarko Kirol Patronatuak antolatzen duten Elgoibarko Gazteen Tenis txapelketako kanporaketak maiatzaren 19an hasiko dira, astelehenean. Partidak arratsaldero jokatuko dira 18:00etatik aurrera. Neskak eta mutilak ez dira elkarren aurka lehiatuko, baina neska gutxi baleude, mutilekin batera jokatuko lukete. Benjamin, alebin eta infantilentzako izango den txapelketa horren finala maiatzaren 31an izango da, eta egun horretan teniseko jaia izango da Bartzelonatik etorritako tenis entrenatzaile batekin.

Bestalde, 40/15 tenis elkartearen zozketaren zenbaki irabazlea "810" izan da.



Sarituak deitu dezala 670 066 797 edo 637 990 159 telefonoetara.

## Altzolako Zubibai elkarteko hamasei kidek Aitzbeltz bisitatu zuten joan den domekan



Umeekin Aitzbeltzeko kobazulora gerturatzea nahiko zaila dela azpimarratu dute pasa den domekan bisitatu zuten Zubibai elkarteko kideek.

## Izarraitzeko mendi-maratoian parte hartu zuten bost elgoibartarren artetik, Lariz izan zen azkarrena

Inoiz baino lasterkari gehiago bildu ziren pasa den domekan Izarraitzeko IV. mendi-maratoi erdian. Azkoititik irten eta Aritzagako lautadatik, Iturgaitzera (655m) eta Kakuta (924m) gainera egin zuten antxintxiketan. Elgoibartik bost lagun joan ziren eta Iñigo Lariz Urgaziko kidea izan zen azkarrena helmugan, 2:18:07ko denborarekin. Jon Revert, Aitor Osoro, Eduardo Uribe eta Jose Mari Elustondo ere fin aritu ziren. Sopelako duatloi esprintean, berriz, Imanol Rodriguez 58. postuan sailkatu zen.

Bestalde, Urgazi Triatloi Taldeak errifak saldu berri ditu eta zozketan 423 zenbakia irten da garaile. Irabazlea jarri dadila harremanetan Josu Artetxerekin mesedez (639 055 517).

# EMAITZAK

**FUTBOLA**

Beasain 2 – Haundi 2

Elgoibar 3 – Oiartzun 0 (erreg.)

S.T. Tomas 2 – Elgoibar 1 (jubenila)

Elgoibar 3 – Kostkas 1 (kadeteak)

Elgoibar 0 – Arrasate 4 (alebinak)

Luberri 1 – Elgoibar 4 (infantil txiki)

**ARETO FUTBOLA**

Kenci 8– Artaromo 0 (euskal liga)

Eskolapioak 7– Elgoibar 5 (jubenilak)

**ESKUBALOIA**

Leizaran 22 – Tecnifuelle 27 (sen. nesk.)

Aloña mendi 35 – Pneumax 48 (jub. mutilak)

Tecnomeca 31 – Egia 26 (kad. neskak)

IMH Elgoibar 37 – Egia 13 (kad. neskak)

IMH Elgoibar 30 – IES Const. 13 (kad. neskak)

Aterpe 17 – Aloña mendi 15 (inf. neskak)

**PILOTA (HERRIEN ARTEKO TXAPELKETA)**

Elgoibar 2-Andoain 1

3-22 (kadeteak)

22-21 (jubenilak)

22-6 (senior)

**HIRU TXIRLO (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)**

1. Angel Ibarluzea 23 puntu

2. Ganix Rodriguez 21 puntu

3. Anartz Esteban 19 puntu

**IGERIKETA (GIPUZKOAKO BENJAMIN 5. TESTA)**

Nagore Rodriguez 1:45:34

Elsa Astigarraga 2:00:78

Danel Mugarza 2:15:75

# AGENDA

18:15 IMH Elgobar – IES Cons. (kad neskak)

## LANA

### ESKAERA

• Emakumea interna lan egiteko prest ☎ 639 240 038
• Neska, garbiketa lanetarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 626 914 904
• Neska, garbiketa lanetarako, sukaldean aritzeko edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ 669 064 252
• Neska, garbiketa lanetarako, sukaldean aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 648 192 683
• Mutila, sukaldean laguntzaile, zerbitzari (esperientzia), edo arotz lanak egiteko prest. ☎ 686 545 884
• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa laneterako prest. ☎ 678 939 382
• Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest asteburuetan edo gauetan. ☎ 663 338 456
• Neska, egun erdiz, arratsaldez edo gauez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 686 234 612
• Neska, nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 671 476 869
• Neska, astebukaeretan edo arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678
• Neska, lan egiteko prest. Gidari baimena badut. ☎ 669 154 143
• Neska, garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ 652 446 228
• Neska, etxeetan edo hoteletan zerbitzari lanak egiteko prest. ☎ 638 726 007
• Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ 639 984 262
• Neska, lan egiteko prest. Sukaldean esperientzia. ☎ 656 781 742 / 688 682 398
• Neska, orduka lan egiteko prest: eskailerak, tabernak, etxeak garbitu... ☎ 697 702 158
• Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ 610 632 782
• Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 632 090 180
• Orduka lan egiteko prest. ☎ 654 610 231
• Mutila, pintore aprendiza izateko edo igeltsero lan egiteko prest. ☎ 671 439 926
• Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ 648 210 838

### ESKAINTZA

• Asteburuetako zerbitzariak behar dira. Deitu astelehenetik ostiralera goizez. ☎615 761 463
• Katalogoak saltzeko lagunak behar dira, komestikoak eta barruko arropa eta bitxiak saltzeko. ☎607 824 892
• Zerbitzaria behar da astebukaeretarako. ☎ 943 12 73 34
• Rezola gasolindegian lan egiteko lagun bat behar da. ☎ 943 74 02 41
• Elgoibarko ardandegirako banatzailea behar da. Gida baimena eskatzen da. ☎ 607 468 014

## ETXEBIZITZAK

### SALMENTA

• Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukaldea, bainua eta kamarotea. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Altzariekin eta igogailuarekin. ☎ 666 650 626
• Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berritua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariekin salgai. ☎ 628 115 677

## GARAJEAK

• Bi garaje alokairuan. Plaza Handitik gertu, Jausoro Plazan. Biak itxiak eta ederrak (16 eta 19m²). Bata 75 euro eta bestea 85 euro, hilean. ☎ 615 787 748
• Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorrentzako. ☎ 616 111 603
• Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ 943 74 23 06
• Pista beltzean garaje marraduna alokairuan. ☎ 665 748 781

## MOTORRA

• Citroen Saxo diesela salgai. Egoera onean, beti garajean. 97.000 km. ☎ 665 720 681
• Citroen Xantia 1.9 TD 92CV salgai. 65.000 km. bakarrik. 4.000 euro. ☎ 664 203 406
• Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaiatzeko bost plaza (lau, lo egiteko), sukaldea guztiz ekipatua. Berogailu estatikoa eta bira ematen duen janlekua, dutxa, toldoa eta bizikletak eramateko lekua. 76.000 kilometro. 2003koa. ☎ 658 710 899 / 685 725 840
• Initiale modeloko Renault Laguna autoa salgai. Gama altua. 2003. urtekoa. Egoera ezin hobea. Beti garajean gordea. 88.000 km. 16.000 euro negoziagarri. ☎ 690 226 581

## BESTELAKOAK

• Pisua alokairuan Gasteizen. Ikasleentzako. Hiru logela eta egongela. ☎ 670 351 673
• Logela independentea alokairuan, giltzarekin. Deban, pisu propioa, berria. ☎ 605 585 057
• Alokairuzko etxe baten bila nabil. Denbora luzerako, eta egoera onean, Elgoibar edo Mendaron. ☎ 639 628 763
• Hendaian apartamentu berritua alokatzen da. Familia batentzat egokia. Bi logela bikoitz ditu, komuna, sukaldea, egongela, terraza, igerileku eta parking pribatua. Hondartzatik gertu. ☎ 670 410 858
• Pisua alokatzen da. Logela bat. Altzariekin eta berria. Kanpoaldera ematen du. ☎ 636 631 632
• Ahuntzak salgai prezio onean. ☎ 699 300 325
• Neska behar da logela alokatzeko Debatik gertu. ☎ 664 126 273
• Neska behar da pisua konpartitzeko Mendaron. ☎ 636 690 861
• Neska behar da logela eta bainua alokatzeko Elgoibarren. ☎ 699 486 458
• Gutxienez hiru logela dituen pisu baten bila nabil. ☎ 639 882 004
• Gortinak, ohe arropak, alfonbra txiki edo handi, altzari eta etxerako tresnak behar dira. ☎ 676 444 171

## ABISUAK

• Perikito berdeak ihes egin du kaiolatik. Urasandin, Herri Eskola inguruan. Sarituko da. ☎ 616 790 345

---

gaztu

## BEKAK

### BRITAINIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako hogei beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko.
Epea: ekainak 13.

### IKERKETA

Durangoko Arte eta Historia Museoa. Krimenaren historiaren esparruko ikerketa proiektuak egitea, V. mendetik XVI. mendera arteko kronologiei arreta berezia eskainiz.
Epea: ekainak 7.

## LANA

### SUHILTZAILEAK

Suhiltzaileak. Gipuzkoako Foru Aldundia. Oposaketa bidezko 60 suhiltzaile-lanpostu. Epea: maiatzak 29.

### INFORMATIKA

Eusko Ikaskuntza. Informatika eta Teknologia arduradun lanpostua betetzeko pertsona bat behar du.
Epea: maiatzak 30.

**ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA**
Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: *gib@elgoibar.org*
☎943 74 14 61

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan: 11:00etatik 13:00etara
Astelehenetik ostiral arratsaldetan: 16:00etatik 19:00etara.

---

BARREN astekarian

**BANATZAILEAK BEHAR DIRA**

Interesatuek 943 74 41 12 (Ainhoa) telefonora deitu
edo *barren@elgoibarkoizarra.com* helbidera idatzi



• Zorionak, **Naroa**, bi urte egin dituzulako. Zure guraso, Garazi eta Unaitzen partez, pitufilla!



• Zorionak, **Rosa Maria,** maiatzaren 22an 15 urte egingo dituzu-eta. Zure anaia arreben partez.



• Zorionak, **Kira**, zure lehen urtebetzean. Gurasoen partez.



• Zorionak, **Ibai**, bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat zure familiaren partez.



• Zorionak, **Ainhoa,** atzo bi urte egin zenituelako. Zure guraso Iven eta Anaren partez. Muxu asko.



• Zorionak, **Ane.** Etxekoen partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **Jon.** Bihar bi urte betetzen dituzulako. Guraso, aitona-amona eta osaba-izekoren partez.



• Zorionak, **Marcos**, hilaren 20an zortzi urte egingo dituzulako. Asier, Iria eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Malen,** hiru urte egingo dituzulako. Familakoen eta bereziki Maddiren partez.



• Zorionak, **Elsa,** bihar bi urtetxo egingo dituzulako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Oier,** gaur zazpi urte egingo dituzulako. Etxekoen partez ondo pasa. Musutxoak.



• Zorionak, **June,** maiatzaren 13an bost urte egin zenituelako. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **printzesa**, zure zazpigarren urtebetetzean. Etxekoen partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Helene**, bi urte egin zenituelako. Familiaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **Yuri**, hilaren 14an lau urte egin zenituelako. Bereziki Idoiaren partez.



• Zorionak, **Egoitz,** atzo zure hamargarren urtebetetze egunean ondo pasatuko zenuelakoan.



• Zorionak, **Ascen**, hilaren 13an urteak egin zenituelako. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Unax**, gure etxeko morroskoa, atzo lau urte egin zenituelako. Muxu pila zuretzat.



• Zorionak, **Noemi**, bihar zazpi urte egingo dituzulako.



• Zurekin ez izan arren, zorterik onena opa dizugu domekako azken dantzan. Jaso txalo zaparrada!



• Zorionak **aitatxo**, mila muxu etxeko sorginen partez.



• Zorionak, **Lander**, ondo pasa zure egunean. Guraso eta anaia Ibonen partez.



• Zorionak, **bikote**, urteak egin dituzuelako. Muxu handi bana familia eta lagunen partez.



• Zorionak, **txikitxo**. Asko maite zaitugun lagunen partez.



• Zorionak, **Beñat eta Ainhoa**, iritsi da zuen eguna. Mendaroko lagunen partez, ondo pasa eta zoriontsuak izan.



• Zorionak, **Nora eta Peru,** aste honetan urtebete eta lau urte egin dituzuelako. Muxu handi bat etxekoen partez.

## OKINDEGIA

18 domeka BOLINTXO

## FARMAZIAK

| | 24 ORDUZ |
|---|---|
| 16 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 17 | Yudego |
| | *(*Goizez Ibañez)* |
| 18 | Ibañez |
| 19 | Bidasolo |
| 20 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 21 | Fernandez |
| 22 | Yudego |
| 23 | Zabaleta |

Escala
Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez
Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta
Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

### INFORMAZIO GEHIAGO:




Egin klik *www.elgoiBARREN.net*en

## 16 *barixakua*

17:30 **Kiribilka programa**
Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

## 17 *domeka*

7:00 **Mendaroko itzulia**
Mendaroko Gazte Asanbladak antolatuta, Mendarori itzulia emango diote, mendiz mendi. Irteera, Gaztetxean.

## 19 *astelehena*

9:00 **Internet ikastaroa**
IT-KZgunea ikastaroa hasiko da, hilaren 30era arte. 16 urtetik gorakoentzat.

18:00 **Erakusketa**
Herri Batasuna sortu zela 30 urte. Kultur Etxeko sotoan. Ondoren, luntxa egongo da. Hilaren 22ra arte egongo da ikusgai.

## 20 *martitzena*

18:00 **Hitzaldia**
Pedro Ramos sendagileak "Mirari-dieten arriskuak" hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxean.

## 22 *eguena*

18:00 **Hitzaldia**
Ezker Abertzaleak Herri Batasunaren 30. urteurrena dela-eta, hitzaldia eskainiko du. Kultur Etxean.

## 23 *barixakua*

18:30 **Ikastolako jaialdia**
Haur Hezkuntzako ikasleek jaialdia eskainiko dute. Ikastolako frontoian.

18:30 **Ikasleen agurra**
Pilar Ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleen agurra. Pilar Ikastetxean.

19:00 **Erakusketa**
Eskuz elkarteko ikasleek zaharberritutako altzarien erakusketa inauguratuko da. Ekainaren 1era arte egongo da ikusgai. Kultur Etxean.



## TRINITATE JAIAK

### ELGOIBAR

**16 BARIXAKUA**

**22:00 Ufaka Zanpaka**
Burrunba taldeak dantzaldia eskainiko du Herriko Antzokian.

**23:00 Kontzertua**
Darling Shoes, Garabi eta Skasti. Madalako Gune Askean.

**17 ZAPATUA**

**10:00 Trinitateetako azoka.**
Leku Eder parkean.

**11:00 Trikitilarien kalejira**
Musika eskolako trikitilariak.

**11:00 Porru patata lehiaketa**
Madalako gune askean.

**Ondoren** bazkaria.
Txartelak Iratxo eta Txuri-Beltzen.

**12:30 Erakustaldia**
Ardi txakurrak antzarrekin. Nafarroa Plazan.

**Jarraian,** ahari topaketa

**17:00 Dantza jaialdia**
I. Bereziartua musika eskolako ikasleen dantza jaialdia. Plaza Handian (euria bada, Ikastolan).

**19:00 Mintxetari omenaldia**
Harrijasotzaileen erakustaldia. Plaza Handian (Euria bada, Ikastolan).

**Tartean,** trontzan eta ingudea altxatzen arituko dira Lagun Artea taldekoak.

**19:30 Dantzaldia**
Nafarroako Besterik Gabe taldearekin, Madalako Gune Askean. Afalostean ere dantza saioa eskainiko dute.

**00:00** Nagusien danborrada.

**18 DOMEKA**

**9:00 Diana**
Udal Txistulari taldearekin.

**9:00 Ehiza txakur lehiaketa**
Larraskandako zelaietan.

**10:30 Artisau azoka**
Leku Eder parkean.

**11:00 Meza Nagusia**
Parrokiako Abesbatzaren laguntzaz.

**12:00 Haurren danborrada**
I. Bereziartua musika eskolako bandaren laguntzaz.

**117:30 Erraldoi eta buruhandiak**
Herriko dultzaineroekin kaleetan zehar. Sorpresa handi bat egongo da.

### MENDARO

**17 ZAPATUA**

**17:00 Jaien hasiera**
Zuhaitza jasoko da, kanpai eta txapliguekin.

**18 DOMEKA**

**10:00 Txistularien kalejira**

**11:30 Meza Nagusia**
Trinitateko baselizan, Mendaroko abesbatzak abestuta.
Meza amaieran abesbatzare

**Ondoren, hamaiketakoa**
Laja eta Landakanda trikitilariekin.

**14:30 Herri bazkaria**
Toki Alai jatetxean

**20:00 Herri afaria**
Aizpe Elkartean, Laja eta Landakanda trikitilari bikotearekin.

## Gure gomendioa

**Trinitate jaiak**
Asteburu osoan

Gaur gauean hasita, asteburu osoan zehar ospatuko dira Trinitate jaiak. Egitarau zabala antolatu dute herriko kultur taldeek aurten ere, eta ekitaldi asko izango dira. Kaleak musikaz eta alaitasunez jantziko dira, beraz, ez dago etxean gelditzeko aitzakiarik.






**«La guerra de Charlie Wilson»**
17, zapatua: 19:00/22:15
18, domeka: 19:00
19, astelehena: 21:30

**«La hipocresia del deseo»**
eta
**«Las estrellas de la linea»**
(Paradisu zinema, Gaztetxean)
18, domeka: 18:00

**"La guerra de Charlie Wilson"**
**Zuzendaria: Mike Nichols.**
**Aktoreak:Tom Hanks, Julia Roberts, Phillip Seymour Hoffman, Amy Adams.**
**13 urtetik gorakoentzat**
AEBetako legebiltzarkide batek eta CIAko agente batek 80ko hamarkadan Afganistango soldaduei armak lortzen lagundu zieten, sobietarren aurka borroka egiteko. Bien bizitza nondik nora joango den kontatzen du drama honek. George Crileren liburu batean dago oinarrituta.

txatxaran







# imanol perez

**IMHko ikaslea da Imanol Perez. 19 urteko ikasleak Ekintzaileen Ideien Lehiaketa irabazi du. "Zer hobetuko zenuke IMHn?", galderari erantzun zion botiletan saltzen dituzten freskagarriak eta paketeak birziklatzeko proiektu batekin. Ideia gehiago ere bazituen. Motibaturik dago.**

## "IMHko kafetegian wi-fia jartzea ere pentsatu nuen"

**Zure proiektua gauzatuko dute?**
Agian bai, ideia ona da, ezta? Birziklatu ahal izateko zatitu eta konpartimenduak egitea proposatzen nuen.

**Ideia gehiago zenituen?**
Bai, wi-fia jartzea kafetegian. Ideia ona zen. Baina birziklatzea modan dago eta...

**Mantenimendua eta Industria Muntaiako lehen ikasturtean zaude. Zergatik aukeratu zenuen?**
Industria asko dago inguru honetan, eta ez nuen lizentziaturarik egin nahi. IMH herrian bertan dago, eta enpresak ere gertu daude. Gainera esan zidaten laster 80 pertsona inguru jubilatuko zirela. 30 gaude ikasgelan.

**Tipo praktikoa zara?**
Bai. Teoria ez zait gustatzen, ikasketetatik kanpo ere ez.

**Ekintzailea ere bazara?**
Bai, ebaluaketa bakoitzean proiektu bat egiten dugu. Urte honetan tornu bat muntatu behar dugu...

**Ekintzara pasatzen den horietakoa zaren jakin nahi nuen....**
Bai. Abuztuan ere lan egiten dut aitaren tailerrean, eta gustura. Estanpazio eta produkzio tailerra da.

**Txikitatik tailer batean hezitakoa zara, orduan.**
Bai, eta gustura. Eta dirua irabazten dut. hamabost urtetik nabil lanean.

**Aurrezten duzu?**
Bai, baina pasa den urtean Las Palmasera joan nintzen gurasoekin, eta dirua gastatu egin nuen.

**Lanbide heziketan zerbait praktikoa ikasi, lana egin eta dirua irabazten duzue. Hori guztia jakinda, zergatik joaten da oraindik hainbeste jende unibertsitatera?**
Ez dakit, *empolloiak* direlako.

**Lizentziatu askok ez dute soldata hobea irabazten...**
Bai, gurea praktikoagoa, egiazkoagoa da.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**KRISTINA ENEA ETA IGELDORA IRTEERA**

**MAIATZAK 24**
Izen-ematea eta informazioa:
943 74 88 83. **5 euro**
(Ludotekako bazkideentzat)

GAZTELEKUKO EKINTZAK

Aerobic eta Funky saioa
**gaur, barixakua,**
17:30ean

**UDALEKUAK**
Mendigorrira joateko izena emateko azken eguna **GAUR** da


Zubia
Jatetxea
TRINITATEKO JAIAK!!
Egin ezazu zure erreserba!
- Mariskada
- Txerrikumea
- Eguneko menua
- Menu berezia
(gutxienez bi pertsona)
Bainuetxeko Zumardia kalea, 2 behea
20860 ALTZOLA
Tel.: 943 74 45 78


TEMPUR
laxy
sonpura
OLDSAN
MASH
TEXTIL HOGAR · KOLTXOI DENDA
LAGUNAK
ergos
1 - Kanpo zorroa kremaileraduna eta ehun iragazgaitza. 1,5 zm-ko biskoelastikodun lur-estaltzeduna. 40°C-tan garbikorra.
2 - Barne zorroa ehun elastikodunarekin
3 - Biskotexa
4 - Ergotexa
1
2
3
4
LAGUNAK
24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe
San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR
www.textillagunak.com

# Gremioen GIDA

## Aroztegiak

**Asima**
Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

**Biena**
Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

**Garcia**
Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

**Imar**
Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

**Lodoso Leihoak**
Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

**Soraluze**
Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

**Ulazia**
Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47

## Indusketa lanak

**Lekunberri indusketak**
Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria
☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.es
www.excavacioneslekunberri.com

## Lorezaintza

**Pagoa loradenda**
Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307

## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

**Ibámar**
Ermuaran Bide, 11
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

**Javi**
Erretxindi, 1 behea
☎ 659 772 932

**Ongi**
Olaso Poligonoa, 15-68 pabiloia
☎ 943 74 28 80

**Pagoaga**
San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

**Pagoerrota**
Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

**Tellabide**
Azpilgoeta, 7 · MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

**Santa Ana iturgintza eta instalazioak**
Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

**Zubizarreta instalazioak**
Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44

## Pinturak

**Blok dekorazioa S.L.**
Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

**Ipintza**
Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

**Ku Kolorea**
Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 22 58

## Proiektu eta erreformak

**Estudios Arrillaga**
Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698

## Elektrizitatea

**Aramar**
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

**Azpeleta**
San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

**Joseba**
Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

**Urzelai**
Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76

## Igeltseritza

**Antonio Markez**
Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

**E. Arandia**
Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

## Autoentzako tindatutako kristalak

**Glas Control S.L.**
Olaso 27, 47. pabiloia
☎ 943 74 30 94